

BESTELAKO XEDAPENAK

ENPLEGUKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

1560

EBAZPENA, 2018ko martxoaren 14koa, Gazteriako zuzendariarena, zeinaren bidez publiko egiten baita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren «Auzolandegiak» programaren 2018. urteko ediziorako onartutako proiektuen zerrenda.

Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2017ko azaroaren 10eko Aginduak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren «Auzolandegiak» programaren 2018. urteko ediziorako proiektuak aurkezteko deia egiten die Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoei eta irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuei. Agindu hori 2017ko azaroaren 27an eman zen argitara EHAA.

Agindu horren 13. artikuluan xedaturikoa betetzeko, Gazteriako zuzendariak ebazpena eman du 2018ko urtarrilaren 26an. Ebazpen horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren «Auzolandegiak» programaren 2018. urteko ediziorako proiektuak onartu ditu. Ebazpen horretan jaso da onartu ez diren proiektuen zerrenda ere.

Gazteriako zuzendariaren ebazpenaren berri emango zaie banan-banan interesdun guztiei. Horrez gain, aginduaren 13. artikuluan xedaturikoari jarraituz, onartu diren eta onartu ez diren proiektuen zerrendak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira, zabalkunde osoa izan dezaten.

Ondorioz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengo artikulua.— Argitara ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren «Auzolandegiak» programaren 2018. ediziorako onartu diren proiektuen zerrenda (ikus I. eranskina), zabalkunde osoa izan dezan. Proiektu horiek Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoek eta irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuek aurkeztu dituzte Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburuak 2017ko azaroaren 10ean emandako Aginduaren babespean (2017ko azaroaren 27ko EHAA).

Bigarren artikulua.— Argitara ematea, zabalkunde osoa izan dezan, onartu ez diren proiektuen zerrenda (ikus II. eranskina).

Vitoria-Gasteiz, 2018ko martxoaren 14a.

Gazteriako zuzendaria,
ANDER AÑIBARRO MAESTRE.

2018ko martxoaren 22a, osteguna

I. ERANSKINA

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren 2018ko «Auzolandegiak» programarako ONARTU DIREN PROIEKTUAK

| Eskaera egin duen entitatea | Auzolandegiaren proiektua | Auzolandeg. non | LH | Lan-mota | Puntuak guztira | Onartutako txanda kopurua |
|---------------------------------|--|-----------------|----------|--|-----------------|---------------------------|
| Aguraingo Udala | Pedroko Hezegunearen eta Aguraingo ingurune berdearen berreskurapena, garbiketa eta errebalorizazioa | Agurain | Araba | Ondare naturalaren kontserbazioa | 61 | 1 |
| Arraia-Maeztuko Udala | Indusketa arkeologikoa San Ildefonso edo Gustaldapa asfaltoen fabrian | Maeztu | Araba | Arkeologia eta ondare industriala berreskuratzea | 57 | 1 |
| Hazian Kultur Elkarte | San Gines bidea 2018 | Galdames | Bizkaia | Ondarea berreskuratzea | 62 | 1 |
| Lekeitioko Udala | Hirugarren adinekoentzako animazioa Uribarren Abaroa egoitzan | Lekeitio | Bizkaia | Hirugarren adineko pertsonen gizarte-dinamizazioa | 61 | 2 |
| Lemoako Udala | Lemoatx 2018 | Lemoa | Bizkaia | Arkeologia, ondare berreskuratzea eta memoria historikoa | 68 | 2 |
| Urremendi Landa Garapen Elkarte | Urdaibai-Biosfera Erreserba eta Turismo Jasan-garria | Busturialdea | Bizkaia | Ingurumena-ikerketak | 59 | 2 |
| Zamudioko Udala | Waste4think Zamudio | Zamudio | Bizkaia | Ingurumena | 54 | 1 |
| Bergarako Udala | Belaunaldi arteko trukaketa Mizpirualde Egoitzan | Bergara | Gipuzkoa | Hirugarren adineko pertsonen gizarte-dinamizazioa | 61 | 1 |
| Elgoibariko Udala | Moru proiektua. Gure ingurumena zainduz | Elgoibar | Gipuzkoa | Ingurumena eta ondare berreskuratzea | 54 | 1 |
| Tolosako Udala | Uzturren ekosistema naturala berreskuratzeke proiektua | Tolosa | Gipuzkoa | Ingurumena eta ondare berreskuratzea | 62 | 1 |

2018ko martxoaren 22a, osteguna

II. ERANSKINA

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren 2018ko «Auzolandegiak» programarako ONARTU EZ DIREN PROIEKTUAK

| Eskaera egin duen entitatea | Auzolandegiaren proiektua | Auzolandegia non | LH | Lan-mota | Zergatik ez den onartu |
|-----------------------------|--|------------------|---------|--|--|
| Kanpezuko Udala | Kanpezuko zubiak berreskuratzea | Kanpezu | Araba | Ingurumena eta ondare berreskuratzea | Puntuak lortu arren, ez du gutxieneko puntuazioa lortu |
| Larrabetzuko Udala | Larrabetzuko Gaztelumendi mendigunean dauden 1930ko Gerrako aztarnak garbitu eta berreskuratzeke proposamena | Larrabetzu | Bizkaia | Arkeologia, ondare berreskuratzea eta memoria historikoa | Puntuak lortu arren, ez du gutxieneko puntuazioa lortu |